

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

311n. zenbakia

zemendia 2005

2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

LANDARAK: GARAUDUNAK (ALEDUNAK)

Ejipto'ko Faraon'en aldian, ugariak ziran garia gai daben ipuiñak Oinarriko egia auxa da: gari barik ezin leike ogirik edo opillik egin.

Ejiptoarrak garia ereiteko sasoiaren Osiris jainkoaren irudi bat sartzen eben lurpean, uzta barriagaz bera be barriro jaio daiten. Inoiz gizakiren bat edo idi gorriren bat eskintzen eutsoen eta idi orren autsak aidean zabaltzen ebezan, kolore gorri ori garialearentzat ona zalako.

Iris jainkoak be bariaren alde egiten eban.

Grezia'tarrak Demeter esaten eutsoen eta onen irudiarri landara-buru bat ipinten eutsoen buruan ereinda.

Orreik ipuin utsak dira. Ale bakoitxak bere sasoi dauka eltzeke baiña gaur be gauza arrigarria da gizakiak ezin egin dauan ale bat eskuetan eukitea!

K.a. sei-bat gizaldi bizi ziran erriak, garagarra, garia, oloa, kizkia ta artatxikia ezagutzen ebezan.

Mesopotamia'n garagarra ta garia nastau egiten ebezan garagardo egiteko.

Erromatarrak aledun bi orreik ogia egiteko erabilten ebezan garia eta ogi ori oso gogoko izan da arrezkero XVIII gizaldira arte eta Norwega'ko erri batzutan oraindiño be erabilten da.

Zikirioa edo zentenoa Turkestan'etik ekarria da eta onen urunagaz egiten diran opillak lili ubelaren usaiña dauke. Ogi au zan erdi-arogan alemanen janari gurena.

Kizkia, gari-antzekoa da izan be, Nepal eta Mantxurian sortua da eta andik XV Gizaldian ekarria. Errusia'n barazkitzat dauke eta utsik naiz gariari lotuta ogia egiteko erabilten dabe.

Oloa edo abena zabal dabil gure artean eta basa-olotik aldatua da. Eslabia'n zuku ateraten eutsoen, anglosajoiaren lapikoan egozteko artzen eben eta guk oloagaz gaur be bizkotxoak egiten doguz. Zamarako abereai emoten be ona da.

Artoa Ameriketatik ekarriak eban Ernaniar baten eta XVI gizaldian erein eban emen lenengoz. Gaur milla ta berreun arto-mota ezagutzen dira. Kolon ameriketara joan baiño lenago Aztekak eta mayak ereten ebe artoa eta txitxa deritxan edaria be egiten eben garau onegaz. Euskaldunak morokilla egiten doguz artoagaz eta asturitarrak «borona» Taloa ta artoa ugari izan dira gure artean.

Baiña begiratu dagiogun astiroago gure eguneroko ogiari.

Udako oporraldia amaitzen danean, urrillean, zelai zabal-zabaletan idi buztarriak asten ziran lurra lantzen eta ereitereako tajutzen.

Gero lur-gaiñean gari-azia zabaltzen da parrastaka. Azi bakoitxak ebagi bat dauko erdian eta urre kolorekoa da, baiña aldi andi bat igaroten da ereiten dan taju orretara azi barria agertu arte. Onelan:

Azitzua lurrean sartzen da, naikoa sakon gorantz jotzen daualako, eta gero giroaren zain dago, izotzak lan-

darea il be egin leike. Negua igaroten danean, azal orlegi meeak estaltzen dau lurra, orreitarako landara bakoitxak ogeta amar azi emon daitez. Uztailla eldu baiño lenago elduko da, lur batzutan, beroetan, ariñago.

Ikuspegi ederra gari-arlo luze zabalak eldu ondoren erakusten dabena.

Lenago segeagaz ebagiten zan, baiña orain tramankulu aundiak dagoz garia zorroan sartu arte gertatzeko. Eta galtsua ona izaten da abereen janari lez, asketan ipinteko.

Gariari autsa kentzeko antxiña artzea erabilten zan aizetan, gero tramankuluak etorri ziran zeregin au beteteko. Eta gari garbia gertu dago errotara eroateko eta urun biurtzeko.

Uru onegaz lenago bakoitxak egiten eben etxerako ogia etxe-aurreko laban edo subeteko autspean, baiña orain ogigilleak irabazi aundiak ateraten dabez ogia salduta. Ba-dira orregaitiño, baserrietan ogi gozoa egiten jarraitzen dabena eta ogi onek aste osorako balio izaten dau.

Eun urun-kilok eun eta berrogeta bost kilo ogi emoten dauz, urun-lorearena izaten da zuriena eta au erabilten da gozokiak egiteko.

Ori da gari-azi txikiaren edestia.

Birmania'n ugoloa edo artatxikia (mijo) ereiten dabil Sabi deritxon neska bat eta otoitz au egiten dau «Zatoz, artatxikiaren espiritua, zatoz sortalderik naiz sartaldetik, txorien paparretik, ibaiko berdearen naiz tximiñoaren matrailletik, elefantearen zurretik. Zatoz naiz Asum'etik naiz Birmania'tik, zatoz urriñeko bakar-errietatik artatxikiaren arnasa, zatoz aizetegi guztietatik, zatoz».

Neskatilla orrek ba-ekian berak espiritua eukala eta artatxikiak (mijoak) be alan uste eban.

Aurten ez dogu goserik izango, diño aateak, au zoriona! Kontuan artu lur osoan irutatik bik mijo jaten debala. Geuk be jaten genduan artoa etorri baiño lenago. Bi milla artatxiki-mota baiño geiago dagoz munduan.

Alde aurreratuetan baserrian lortzen dan artatxikia jaten da, baiña toki txiroetan mendietan sortzen dana dabe janari.

Kristo'ren aldi inguruan eroan eben landara au Korea'ra eta Asia'ra, baiña ordurako ezaguna zan Mesopotamia'n Alexander'en sasoiaren.

Antxiñatik entzuten da Aljerian gau izartsuetan kuskus-zaratea, artatxikia eioten dabillen emakumearena da eta berak egiten dauan janaria da kuskusa.

Lau metro luze be euki leikez landara oneik. Kaukasos'tik Siberai'ra artatxikia ugari ikusirik dozu, eslabitarrak egositan jaten dabe eta esklabo baltzak Afrika'tik Ameriketa'ra eroan dabe. Mundua guztian daukagu.

EUZKO SENDI AINTZAGARRIA

ETXEARRIA TAR BINGEN

Euzko seme jatorra
izatez ta egitez,
ondo, bikaindua,
dizdizera ederrez
argitu dozu gogoz
lurrean zerua.

ANDER ETXEARRIA

Lerrolari bikaiña
euskaldun gizadian,
bide zurrak argitu
zurtasun gogoagaz
Euzko Aldundian

BIDASOLO TAR LUISA

Bakioko lorea
ederrez jantzirik,
zerua zan zuretzat
bizitoki bikain au,
egitez, ondurik.

JOSU ETXEARRIA

Gogo-iztilaria
jakintza bidetan,
argitu jakituriz
Euzko erri maitea
aurrerapidetan.

ITZIAR ETXEARRI...

emakume argia
Mungiaren aurrez,
erri aundi eder bat
zugaz dabil ikasten
zoriontasunez,

JON ETXEARRIA

Ondasun zuzendari
jakintsu artean,
emon da zabal zazu
egizko bide zurra
aurrerapidetan.

PAULIN

JULEN ETXEARRIA

Kimika sail aundian
jakintsu zarana,
gogo onez jarraitu
Euskadi argituten
Kimika erara.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAÏ'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

LUTELESTIA: ERTAIN ETA IPAR-AMERIKA

MEXIKO

España lako lau da zabaleraz Mexiko eta uri eder asko dauz. Kolon ara joan baiño lenago azteka eta maya areik jakintzak ederrak eta gogoangarriak ziran.

1821n. urtera arte España'ren menpean egon zan, baiña arrezkero aurrera-zale agertu da beti, bai edertian eta liburugintzan eta bai salerosketa eta langintzan.

800 egazkin zelai dabez, aundiak edo txikiak, eta garia, artoa eta arrorio ugari dabez euren esku eta zidar-meatzetan munduko bigarren laterria dira.

Iru ameriken (ego,ipar eta erta) erdian dagoz .

KUBA

Emen tabakoa ta kañabera-azukarea dira irabazbiderik aundienak. Fidel Kastro'k ondo daroa kultura-arloa, batez be medikutza, baiña ugarte eder au oso atzeratuta dauka, bai politika'n eta bai ondasun-arloan. Oso txiro bizi da bertako jentea eta ara doazen turistak aberats.

GUATEMALA

Maia'tarren jakintzaren sorlekua da eta kafea ta kotoia dauz irabazbiderik aundiena. Orrei laguntzeko bananak, kakaoa ta artoa.

HONDURAS

Lur-gaiñeko aberastasuna bananak dira eta lurpean zidarra eta urrea.

KOSTA RIKA

Izen ori zeozergaitik artu eban lurralde eder onek: Loratsua da, abereak dauz ugari, kafea edo akeita,kakaoa, zura.Lurralde aberatsa da.

SALVADOR

Sumendiz josita dago lurralde au eta kafea ugari euki arren, lurralde txiroa da.

NIKARAGUA

Ruben Dario olerkari aundiaren lurraldea, lurralde zabala ta jakintsua.

PANAMA

Urbide edo kanal ospetsua dau irabazbide nagusi. Laterri Batuen esku egoan, eurak egin ebelako, baiña Torrijos'en aldian sartu zan Panama'tarren eskuetara. Salerosketarako bide lez diru-iturri aundia, Egoamerikaren barrenetik bira egin bearrean, igarobide zuzena ta laburra dalako

LATERRI BATUAK

Iparramerika'ren erdian dagoz.

Kalifornia epela dago Itxas-Barea'ren ondoan, frutak ugari dauzala:madariak, sagarrak, laranjak eta maatsa batez be.

Erdialdea "rantxo" edo baserriz beterik dago eta toki aberetsua da.

Iparraldean garia, artoa, eta azukaredun arbi nagusi edo erromalatxea dago.

Sarkaldean, Atlantik Itxasorantza meatzak dagoz ugari, Apalatxe mendiak ospetsuak dira ikatz-toki lez.

Danean ur-jauzi aundiak dagoz ugari eta indarra lortzen da lantegietarako.

Berrogeta amar laterri alkartu dira, orregaitik dauz 50 izar euren ikurriñak.

Biztanleak geienak Europa'tik joanen ondorengoak dira eta geroago etorriak azal oridun batzuk eta Afrika'tik jopu ekarritako baltz ugariak.

Europa'tik ara joanak ez ziran nastatu bertako inditarrakaz. Naste ori egin eben españatarrak egoaldean eta ez zan naste ona gertatu.. Emen inditarrak, zori txarrez, baztertuta geratu diran eta orain be bazter orreitatik, erreserbetatik, urten eziñik edo aurrera egin eziñik dagoz.

New York edo York Barri uri aundia dago Atlantik itxasoaren ertzean, munduko uririk eta kairik aundiena.

Etxe goreak edo "rascacielos" diralakoak egin dabez biztanle asko batu diran tokietan guztiai etxeak izendatzeko, baita idaz-gelak mundu guztirako egiteko. Gogoratu Torre Bikoitxen jazokizun negargarria!

Eskualde au da munduan aurreratuen eta kotoia,arrioria eta arri.ikatza ateraten onena, orregaitik daukez munduko burdin-lantegirik eta trenbiderik onenak.

Konturatu beitez Laterri Batuetako biztanle ondo oitua, munduko gosea eta atzerakuntza kentzeko lana egin bear dabela, baita kutsadura kentzeko agiria izenpetu be. Arazoa ez dabe konponduko guda eginda, txiroen lagun izanda baiño. Islandarrak sendo agiri dira!

KANADA

Ia-ia Europa osoaren besteko lurraldea da Kanada.

Laterri artean isillik agiri da, noizean bein anglofonoen eta frankofonoen arteko gataska auteskundeetan agertzen ez danean.

Iparraldean izotza dago urte osoan, Laterri Batuetakoak diran eskimalen ondoan, trineoen lurra dan Alaska aldean. Alaska au 1958n. urtean alkartu zan Laterri batukaz 49n. laterri lez.

San Lorentzo ibaiak banatzen dau Kanada Laterri Batuetatik eta frankofono ta alglofonoen artean inditar banaka batzuk be bizi dira.

Aberastasuna abereak dira eta igale-landarak, arrioia ta meatzak lagun.

Arri-mendien alboetan europarrak garia artzen dabe.

Etorkizun aundiko lurralde itxaropentsua da Kanada.

OLAZAR'tar Martin'ek

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA

8.-TXINATARRAK

Gizaki-enda jator bat bizi zan antxiñatik Hoang Ho eta “Ibai Oria”ren arandian. “Ule-baltzak” esaten eutsen euren buruai, baiña beste enda batzuk be bizi ziran inguruetan, Txina’ren barruan: Egoaldean, Yan-Tse-Kian edo Ibai Urdiñaren alde bietan, sortaldeko mendi-tontorretan eta itsas-inguruetan.

“Ule-baltzak” izan ziran biziera ibiltariari agur egin eta toki ziurretan lenengo geratu ziranak eta lurra lantzen lenengoak.

Baiña ez ziran alosa bizi. Neguan ibai aundia leitu, izoztu, egiten jaken eta aize otzak jotzen eben inguruan mende-bal-aldetik. Udabarrian uriolak izaten jakezan ondatzaille eta udan legortekak ziran nagusi. Urarentzak erretenak egin bear izaten ebezan arlo egarrituak asetzeko.

Baiña lurra bera emonkorra zan eta izardi askoren ondoren lortzen eben uzta.

Lur landuak zabaltzeko zingirak agortu eta oianak sortzen ebezan.

Buztin errezko etxe apaletan bizi ziran eta salerosketarako bearrezkoak ziran joan-etorriak ibai-ontzietan egiten ebezan, ibaian gora naiz beera.

Uri bakoitxak eukazan bere agintariak, bakea zaintzeko eta lan-eragiteko. Geroago, merkataritza indartu zanean, eta joan-etorriak be ugariagoak bihurtu ziran guztientzat agintari bakarrak eta lege bardiñak ipiñi ebezan.

Salerosketarako kobrezko txanponak eukezan eta azokak uriz uri txandaka ospetzen ziran egun jakiñetan. Ibaiak ez ziran egokiak uriak alkarragaz lotzeko eta legorreko ibilbideak ugaritu ziran eta salgaiak eroateko abereen orde z gurpil gurdiz eroatea asmau eben.

Euren asmapena izan zan izar-mapak irar-tea eta banbu-azaletan idaztea. Idaztea ta marraztea gauza bat ziran txinatarrontzat eta itz bakoitxak eukan bere marrazkia. Orrelan idatzi ebezan euren gertakuntzak eta etorkizunerako edesti zaar bat itzi eben.

Trebeak ziran txinatarrak jantziak egiten, lenengo narruzkoak, gero artille edo lanazkoak eta azkenean sedazkoak. Mazuzta zugarren orriz janaritzen zan euren seda-arra eta orrein ari zotillak arildu eta eundu zan emakume txinatarren betiko lana.

Lana arintzeko abestu egiten eben jainkoen ekintzak azalduz.

Iade arri-pitxi ederra eta ontzien gaiñeko apaingarriak edo buztin-lana bera eder-lan bihurtu eben.

Asieran giza-legez bizi ziran bake santuan senitarte aundiak, ildakoak gogoratzen, espiritu etxe-laguntzailleai eta lurrari berari itzaltasuna agertzen, jakiñeko erak eta oikuneak



Agureak agintari antxina'ko Txina'n.

artuta. Batez be lurra eben maite., bere mendi, ibai eta urte-aldiak kontuan artuta. Ortzari eta eguzkiari begirune aundia eutsen eta erriko agintariak opariak eskintzen eutsezan. Esker ona agertzeko lurra ongarritu egiten eben.

Baiña txinatar guztiak ez ziran zintzoak eta euren agintari guztiak be ez argiak. Sortu ziran an be gudak eta zala-partak, baiña urko laguna, norberaren etxea eta aberria giza-legez eta itzalez begiratzen ebezan. Orrelan iraun al izan eben ainbeste Gizalditan.

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA ´tik
OLAZAR ´tar Martin ´ek moldatua**

DATORREN URTERAKO EGUTEGIA



EGINDAKO SATELITEAK

Iretargiaren antzera dabiltz lurraren biran eta ludiaren erakar-indar edo atrakzioaren eta urrintzera jokerearen indarrak.

Iparramerikarrak izan dira lenengoak olako sateliteak barriro eskuratzen: Diskoer XIII izan zan lurraren biran 750 000 km. eginda, 29 ordu bete ondoren lurrera ekarri ebena.

Diskoer XIV egin eben gero. Errusiarrak txakur eme bi bialdu ebezan eta gero ekarri.

Sateliteak eguratsaren barriak emoten ebezan asieran, baiña gaur argazkiñak, irratiak eta telebista-tresnak daroetz eta 1962n. urtean asita telebistak mundu guztian barriak alkarri emoteko eta telekomunikabideetan erabilteko dira, eta telefono-bideak izateko be.

IZAR-ARTEKO GELTOKIAK

Au da urrengo urratsa: Alemanak asi ziran izarbelen artean egonleku edo geltokiak ipinteko usteetan: Satellite aundiak dira oneik eta ordu bian emoten dautsoe bira gure munduari.

Lenengo zeregiña jakintza-gaiak aztertzea da, erakar-indar barik gauza barriak ateraten diralako, gero andik izartegia aztertuko dabe eta bertatik beste geltoki bat urriñago ipinteko bideak artuko dira eta emendik ara joan-etorriak be erreztu eta ugaritu egingo dira. Asi dira dirudunak ara joan-etorriak eratzen.

Gizonak koetearen barruan dirala egin bearko dabe lan, izartegiko soiñekoz edo "eskafandra"z jantzita, arnasea artzeko bideak be billatzen dabez.

Eta, danaren gaiñean babeski mee eta gogor bat daukela, barruan daukez ofizinak, laboratorioak, begirakabinak, jantokia, lo-gelak... eta dana ondo ta eroso. 30 edo 50-bat lagun bizi al izango dira barruan, izartegian eta emendik 2 000 km.'ra.

Koeteak eroango dautsez janariak, 500 kg. Eta ura, edariak, oksijenoa... Oneik dira izartegiko taxiak.

Taxi ori ara eltzen danean kanpoko atea idegiten da eta taxia sartu eta gero kanpoko atea itxi eta barrukoa zabaldu. Eta ori abiada ikaragarria galdu barik. Taxi dan koete ori barriro lurrera datorrenean, ondakin guztiak ekarri bear dauz. Ezin leiotik bota, etengabeko biraketan geratuko litzakezelako.

IZARBELETAKO GIZAKIA

1961n. urtean, urterillaren 31n. egunean joan zan izartegira Han 65. Txinpanze ondo ezi bat barruan eroi-ala eta onek ondo bete eban bere zeregiña. 13 minutu barru ibilladia eginda etorri zan eta ortik ikasi zan, Merkuruy eginbidean zelan bialdu ara gizakiak.

Aste bi geroago Errusiarrak bialdu eben satellite aundi

bat eta andik Marte'ra koete bat. Iru illebetean eldu zan Marte'ra.

1961'ko jorraillaren 12n. egunean jantzi zan ibillaldi aundirako Yuri Gagarin. 9'ak eta 7'an urten eban eta banan-banan iru zatiak bidean itzi-ondoren eldu zan gure ludia biribil ikusteko lekura eta an egoala emendik aztertzen eben bere gorputzak zelan erantzuten eban. Gero etorri egin zan.

Urte beratan beste ipar-amerikar bik egin eben ori.

1968n. urtean gabonetan Apolo VIII iparramerikarra bialdu zan iru gizon barruan ebazala.

IZAR-ARTEAN IBILTEKO AMETSA

Ametz ori bizi daukagu gizakiok, baiña bideak luzeak eta ibilgailu ariñik ez. Argiaren beste, segundoko 300 000 km. ibilli arren be, ori gitxi da argi-urteak eta millak urtetan ibilli bear dalako.

Baiña zer jazoten da Einstein'ek, errelatibitate bidea kontuan dala, atera eban argiaren abiada ori baiño aundiagoa lortu ezker? Aldiak atzerantza egiten ei dau eta izarretatik datorrenak itxaso aundian iru puntu baltz, iru ontzi ikusten ba-dauz, Kolon'en iru ontziak izan ei leitez. Gauza arrigarria eta pentsagarria ori!

Eta urrats bat. Iretargira eldu gara eta an ateratako argazkiak telebistan ikusi al izan doguz. Ez ei ziran benetakoak. Benetakoak txarto urten ei eben eta gero beste batzuk egin eta orreik emon ei euskuezan. Dana dala, egia da, ara eldu giñala: "Gizonaren urrats txikia, gizadiarentzat urrats aundia" ikusi gendun.

ZELAKO ALEGINAK EGIN ZIRAN

Txina'n polborea asmatu eben eta an egin ziran lenengo koete edo txaplieguak, gero su-sirien leiaketak ikusten doguz, baiña ortxe dago danaren oiñarria.

Bigarren ludi-gudan alemana izan ziran V1 eta V2 koeteak antolatu ebezanak Bretaña aundiaren aurka.

Gero koete zatidunak asmau ziran, bidean zati bi galdu eta ariñago egiteko.

Blockhaus'en egiten dira izartegira jaurtiteko koeteak eta irugarren zatiaren barruan eltzen da satelitea: 400 km.'ra izten dau lenengo zatia, 15 000 km.'ra bigarrena eta eguratsa izten dauanean azala galtzen dau andik aurrera alboko ikutuak berotzen ez daualako, eta satellite utsa geratzen da. Onek ordu bian emoten dautso bira gure munduari. Laster atomo edo kizi-indarragaz joango dira.

Aurrerapen aundiak daukaguz eta itxaropen aundiagoak.

OLAZAR'tar Martin'ek

TOPONIMIA AZALPENAK (BAKIO)

Urgurako atxa, Zabala, Zaitua, Zaitubeazkoa, Zubiaurregoikoa... Izen oneek deklinaukeran, artikulua galduko leuke, etxeko berbetan oikoa dan lez, adibidez:

Bengola-tik
Goikola-ra
Lorra-rantz

Aldeko-ko
Azeretxogoiti-ra
Beiti-rantz
Goiti-tik
Minitu-ra
Ondarr-eko
Zaitu-tik

Errementeri-tik
Erreneri-ra
Telleri-ko

– Gaur eguneko agozko euskeraz toponimoak, geienak, artikulu barik jokaturen diran ezkeran, kontsonantez amaituten diranai **-e-** lotura izkia geituten jake berbetan gagozala, deklinabideko kasuak agoz jokaturtea errezago egiteko. Guk egindako bear onetan ori ez dogu kontuan artu toponimoak idazteko orduan, kasu bitan izan ezik, au da: **-atxe**, **-gane**, berba erroari lotuta agertuten diranetan; olan bada, **Gatzelugatxe**, **Itxasporroatxe**, **Lukiatxe**, **Armokigane**, **Larragane**...

– Izen toponimikoetan **ñ**, **ll** izkiak erabiltea eta **h** izkia ez erabiltea aukeratu dogu, toponimian onartu eta oikoa dan lez: **_Areaga**, **Osiñaga**, **Telleria**,

– **Kukutsa**, **Otsategi**, **Otsategitxu**... leku-izen batzuetan **-ts** izkiak erabiltea obatzat artu dogu **-tx** erabiltea baino, agoz **-tz** agoskatuten dalako errian (**kukutz**, **otzatei**, **otzateitxu**), alan, gaur eguneko idazkearegaz bat egitekotan.

– **Itxasporroatxe**, **Itxastxoriatxe**... leku-izenotan **-tx** izkiak erabiltea obatzat artu dogu **-ts** erabiltea baino, bizkaierazko tradizino idatzian eta toponimian **itsaso** berbea **itxaso** idaztea onartu eta oikoa dalako. Ez, ostera, izen generikoetan (**Areagako itsas ibiltokia**).

– Bakion **j** izkia geien-geienetan (**dx**) agoskatuten da, berbarako: jagon, jai, jaio, jaka, jakin, jan, jantzi, jaube, jaurti, jausi, jesarri, joan, jo, joko, josi, justuri... Berba gitxi batzuk ez dira, gaur egun, olan agoskatuten: jauna, Jaungoikoa, jente... Leenago ez zan izan alan, eta toponimian lotu da bertoko jatorrizko agoskerea gaur egunera arte: **Berjel** (**berdxele**), **Jata(mendi)** (**dxata-mendi**), **Jatabienerdia** (**dxatabidxenerdidxe**), **Jatatzikerra** (**dxatatzikerra**), **Jauregi** (**dxauri**), **Jauregizar** (**dxaurisarre**).

– Toponimo gitxi batzuk **j** izkiagaz idatzi arren, izki ori (**x**) agoskatu bear da, au da, **h** aspiratua agoskatuten dan antzera: **Birjilanda** eta **Birjinetxe** leku-izenetan baino ez (eleizearen eraginez, seguru antzean).

– Erriko agoskereari eusteko **Sanioanalde** (**sandxoalde**) eta **Ioanlopetxena** (**dxolapitxiñe**) leku-izen biotan, eurok idazterakoan, **j** izkia erabili bearrean, **i** erabiltea obatzat artu dogu. Alan da-eta toponimo oneen erro zaarrean: **Iohannes** pertsona izen zaarra.

Berton aitagarri be deritxogu erreken izenak aukeratu-teko erabilitako jokabidea. Erreken izenak ezarterakoan, erreka bakotxaren sorburuko izena artu edo aukeratu dogu geienetan. Erreka izen asko batu dogun arren, geienak erreken zatitxuenak baino ez dira eta ez dira, gure ustez, errekek eurak izentetako besteak. Alantxe bada, aukeratu-tako bideari jarraituz: **Oiagarreka** (1857), **Uretako erreka** (1855), **Arkotxako erreka** (1902) edo **Luza rragako erreka** (1944), **Osiñagako erreka** (1826), **Eitzagako erreka** (1855), **Zarragako erreka** edo **Estepona erreka** (1629), **Zumetzagarreka** (1910), **Garrakolako erreka** (1953), **Amuntzagako erreka** (1926), **Seubaerreka** (1910) eta **Sardiñaerreka** (1942) edo **Sardiñaiturri** (1942). Errekok erriko errekarik andienak dira izan. Erreka nagusia izentetako izen batzuk agertuten izan jakuz: **Zarragako erreka**, **Estepona erreka**, **Kontxakoerreka** (1921), **Goikolako erreka** (1944), **Oiagortako erreka** (1749), **Erreka nagusia** (1940), aukeran, bat baino, izen bi aukeratu doguz, alderdi batetik, **Zarragako erreka** izena idatzizko eta agozko tradizinoan dagoalako eta, bestetik, **Estepona erreka** izena idatzizko leenengo erreferentzia dalako.

Mapa onetan agirikoak dira zeintzuk diran alboerriak (Bermeo, Mungia, Jatabe eta Lemoiz) gure erriak

TOPONIMIA

dituan mugak eta munarriak. Munarriok, dan-danak, izena dauke eta ondoko zerrendan agertuko doguz, munarrien izenak eurak be erabateko edo besteko topo-

nimo biurtuta. Alan bada, mugaz muga eta beti **Gaztelu-gatxetik** ara asita, jakingarri eran, urrengo oneexek doguz (1956):

Bakio eta Bermeo artean:

M-3T **Sanioanalde**
M-2 **Sanioanalde**
M-3 **Urizarreta**
M-4 **Areagakolanda**
M-5 **Areagakolanda**
M-6 **Urgitxi**
M-7 **Goienburu**
M-8 **Txikoarriaga**
M-9 **Txikoarriaga**
M-10 **Txaralekoiturri**
M-11 **Miruotabarri**
M-12 **Katiluiturri**
M-13 **Andramarieta**
M-14 **Dikobaso**

Bakio eta Jatabe artean:

M-3T **Jatabienerdia**
M-2 **Jatatzikerra**

Bakio eta Mungia artean:

M-3T **Zarragako errekea**
M-2 **Goikolea**
M-3 **Goikolea**
M-4 **Goikolea**
M-5 **Lukiartxe**
M-6 **Tallu**
M-7 **Tallu**
M-8 **Ugartebarri**
M-9 **Ugartebarri**
M-10 **Zarratxo**
M-11 **Aretximieta**
M-12 **Garrakola**
M-13 **Garrakola**
M-14 **Jata**

Bakio eta Lemoiz artean:

M-3T **Barberuarenkurtze**
M-8 **Usategi**
M-7 **Usategi**
M-6 **Usategi**
M-5 **Usategi**
M-4 **Usategi**
M-3 **Urrezillo**
M-2 **Uradariona**
M-1 **Uradariona**

AZKEN OARRA: Bear au egiteko leku-izenen ganeko informazioa emon deuskuen gure erriko **172 andra** eta **gizoneri** biotz-biotzezko eskerrak emon gura deutseguz.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRI DOKUMENTALAK

- **BIENANDAZAS E FORTUNAS**, Lope García Salazar, Bizkaiko Foru Aldundia, 1471-1479 (1984ko argitalpena).
- **HISTORIA DE BERMEO**, Anjel Zabala Otxamiz, Bermeoko Udala, 1928 (2000ko argitalpena).
- **DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO**, Plazido Mujika, Mensajero, 1964 (1981eko argitalpena).
- **BAKIOKO ITXAS-ERTZEKO TOPONIMIA**, Juan Maria Markaida, Anuario de Eusko-Folklore, Eusko Ikaskuntza, 1982.

– **NOMBRES DE FAMILIA Y OICONIMOS EN LAS FOGUERACIONES DE BIZKAIA DE LOS SIGLOS XVII Y XVIII**, Alfonso Irigoyen / Elisabeth Olasolo, Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1984.

– **FOGUERACIONES DE BIZKAIA DEL SIGLO XVIII**, Jaime Kerexeta, Labayru Ikastegia, 1992.

– **LABAYRU HIZTEGIA**, Alkarlanean, Labayru Ikastegia, 2003.

– **BAUA**: Bakioko Udal Agiritegia

– **BEUA**: Bermeoko Udal Agiritegia

– **BFAA**: Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegia

– **GJE**: Gernikako Jaubetza Erregistroa

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**

GURE LAGUNAK

Gizakiak asmakizun aundi bat egin eban abereak etxeratu ebazanean eta zorionez abereak beti izaten dira etxeko lagun onak. Eurentzat gaurko idazki apal au.

Begiratu bei-taldea muño orlegiaren gainean, adar luzeak, tente, lasai eta baketsu. Euren urre-orizko estalkia agur egiten dagoan eguzkiak larrosa-kolore biurtzen dau.

An urriñean dagoz uro-antzeko abereak, ez dira onak esnetarako, errape-legorrek dira, eta ez dira onak lanerako be, buztarriari gorrotoa dautsoe. Baiña onuragarri ditu baserritarrak urtean txal bat dakarrelako.

Apur bat beerago, astotxua doa bide zidorretik draka-draka. Jasan aundiko aberea, bete-betea zamatuta, artaldearen atzetik bideak egiten udaldiko barruti ugarien billa. Latza da astoaren bizitza! Baiña adiskide da alboan doan txakurragaz edo artzain-mutillagaz edo ugazabagaz.

Arratsaldea da eta erritik dator aste osorako artzainaren janariak eta euritarako aterki urdin aundiagaz.

Zlaldiak, astoak eta mandoak, laguntzaille onak doguz. Idi bikoten buztartuak lan asko egin dabe gure edestian laiaria erabilten naiz gurdikadak etxera ekartzen. Afrikan eta beste toki batzutan beste itxura batek abereak dabez lagun, konkoriak, esaterako

Basamortuko ontzia esaten dautsegu ganbelu konkori bikoai naiz konkori bateko dromedarioai. Oneik



Txakurra, gure laguna.

barik gizonak ezin igaro al izango leukez karabanetan igaroten dauzan basamortuak. Iraupenez eta jateko naiz edateko eraz arrigarria da abere au. Egunbatztan bizi leiteke urik edan bari eta bedar barik illebete osoa. Begi aundiak eta gozoak daukaz, baiña motza ta traketsa da., baiña laguntza aundia emoten dauku. Eta beragandik dator Afrika'ko ibiltarien aberastasun osoa.

Munduan diran pizti guztiakaz parekatu ezkerok, etxe-abereak gitxi dira, baiña jateko, jantziteko eta ibilteko bear dogu beste daukaguz

Aspaldiko 7000 urte oneitan lagun dogu gure etxeetan txakurra. Berba egiten ez daki baiña ia beste guztia bai. Bere b arrua ausika eta alaurika agertzen dauku.

Nondik dator txakurra? Otsoa edo txakala edo basa-uxakurra ei dai jatorri.

300'dik gora dira ezagutzen doguzan txakur-motak

Antxiña erregeakaz ibiltzen ziran eizan, oreiñak eta basjurdeak eizatzeko, gaur txakurra azeri-eizarako da ona, eper-txakurrak be ba-dagoz, galgoak eizarako onak, eta orduko 59 km. ko abiadea artu leike.

Otso-txakurra da laguntzailerik onena eta argiena, zaindaria,, mezularia, itsuen gidaria., Bere lengusua dan otsoaren antza dauka.

PIZTIAK

Txakur guztietan aundiena San Bernardo-txakurra ei da. Onek edur-arteetan, alpe mendietan galduak askotan onik atera dauz.

Kanitxe-txakurra be txalogarria da eta iru gauza egiteko ona, aatea arrapatu, gudariai lagundu, eta eizarako be erabilten da.

Ospetsuak ziran erbi-txakurrak eta gero guztien agotan dagoz txakur-mota ñañoak: Pekindarra, Tenerifetarra, luluak, tximeleta-txakurrak, fox, txau-txau...

Katua? Zapi bizitza dituana? Ejipto'n sasi jainko lez gurtzen eben, Erdi-aroan, ostera erre egiten eben. Batzuk maite dabe, beste batzuk gorroto. Eskatzean egoten da zalea eta sutondoa dau maite. Batzutan makal agertzen da baiña urrengoa peloteagaz jokan ikusiko dozu. Baiña bere begia beti egongo da kaiolan dagoan kanariari begira. Bere erpak zorotzak dira ule artean, eta ondoen janda egon arren be, saguen eiza ez dau izten. Errez biurtzen da basati izatera.

Abere laguntzailleen artean bikaiñetariak zaldia da. Asia'tik etorria ei da.

Urteak zear, gizonak zaldi mota bereiziak euki dauz, batzutan lanerako, lasterketarako, gurdiak eroeteko, ... guztiak ederrak baiña edertasun ezbaridiñagaz.

Zaldiaren begietan errez irakurriko dozu sena, arrokeria edo leialtasuna.

Zaliaren belarriak bed ba-dakie berba egiten: belarri aurreratuak dana ondo doala esan nai dau,, belarriak zuzen gora doazenean "egon zur" esan gura dau eta belarri tximurtu egiten diranean bildurra adierazten dabe.

Baiña goazen gugandik urren dagozen abereai begiratzera.

Txarria daukagu gure etxeetan, itxuraz zikiña baiña izaten garbi gorbia, b ere bizia emon eta egunerako

naiz illebeterako naiz urtebeterako janariak emoten dauskuzana: Egunerak barruzkiak, illebeterako buzkantzak edo solomoa edo saieskia, urte osorako lukainkak, urdaia, pernila. Baserrietan gazunaskak beteten dauz eta bear dan janari eskiñi egunero.

Gure inguruan ardiak gitxiago dira Australia'n eta Afrika barrenean edo Arjentina'n baiña, baiña Europa'n ardi gitxi dagoalako, ara sartzen garan neurrian ugarituklo dira ardi gure artean. Baiña lana edo artillerik onena geurea da, merinoarena. Eta emendik zabaldu da mundura ardi-mota au.

Auntzak be urri ikusten doguz gure inguruan, eta txirotasunaren ezaugarri izaten diar. Beiak, ardiak eta auintzak gaztai onak egiteko aukera damoskue.

Ez dogu amaituko beiai gorazarrea egin bagerik. Beiak iru onura ekarri dauz gure baserriira: Eznea, txala eta lana. Orregaitik bei motak aukeratu egin bear izxan doguz.

Geurea zan bei pirine edo Auñamendi endakoa, basabeia be esaten dautsaguna, edo abelgorria be bai. Onek ez dau balio urtean txal bat eskintzekio baiña, ez dau eznerik emoten, ez lanik egiten, baiña basoan biz da, ardura gitxi bear dau.

Suiza'tik ekarri gendun bei gorritzkea, lanerako ona, urtean txal bat dakarrena, baiña ezne gitxi ta lodia daukana.

Olandarra da irugarren endea, onen narruko margoak zuria ta baltza dira eta esnea emoten da ona, urtean txal bat dakar eta lanerako ez dau balio. Onen ondorengoak dira obeto gertatuta datozen frisoiak. Ikusten da arlo onetan Europaren menpean gagozala

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

B

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

- EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
- Ipuiniak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
 - Ipuinak asmatuikoak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
 - Luzeera iru orrialdetik laur orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiniaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
 - Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.
 - Sariak bost izango dira:
 - 1.^a 300,50 euro 4.^a 120,20 euro
 - 2.^a 240,40 euro 5.^a 60,10 euro
 - 3.^a 180,30 euro
 - Ipuiniak zein ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
 - Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

IDAZLE ZARRAK

Gure irakurleen jakintzarako eta irakurgai onuragarriak izan dagiezan, gure elerti edo literaturaren edestia, labur-labur, gaurtik aurrera zengaki batzutan idaztea otu jaku. Geienetan Aita Santi Onaindiaren liburuetatik artuk doguz jakingarriak. Bati ipiñiko dogu idatz-zatitxu bat irakurleak aztertu dagien.

Gaurko lan onetan idazle zarrak begiratuko dautsegu. Eta idazle zarrak diñogunean, 1545n. urtean lenengo liburu irarria agertu baiño lenago idatziak esan gura dogu.

Gure idazle zarrak aberastasun aundia dira elertiaren edestian.

139 olako olerki dakaz Aita Santi'k Milla Olerki Eder bare liburu gogoangarrian.

Sei arloetan moltzotuta datoz olerki guzti oneik: 1.– Gerta-olerki zarrak. 2.– Maite leloak. 3.– Irri ta negar. 4.– Ardo-kantak. 5.– Jainkotiak. 6.– Pastoralak. Or sartzen dira baita, bertsolarien lanak eta eskaleen kantak be.

Gogoratu daiguzan batzuk.

Lelo'ren kanta, Bizkaitar batek 1529n. urtean idatzia. Beotibar'ko gudua, giputzen eta napparren arteko arazo(1321); Milia Lastur'en kantua, benetan irakurgarria. Perutxo'rena, Menendez Pelaio'k 3n. Zelestina liburuan aurkitua (1536) Alos Torrea...

Baiña idazle zar onein artean aberastasunik aundiena Pastoralak dira. Oneik ez dira besterik Ipar-Euskalerrian erdi-arotik datozen antzerkiak baiño Asko dagoz eta antzerki-arlo orretan Europa'ko abertastasunik aundiena dira. Dama de Elche'ren tankerakoak dirala esango dogu, baiña arlo zabal baten.

Ona emen Beotibar'ko zelaiak
Len illunak gaur alaiak!

Beotibar'ko arkaitzetan
Frantzesak gure oiñetan
Arro asko sartu ziran,
umil asko irten ziran,
Oñaz agintari aundia,
Zuretzat gure bizia.

Nora zuaz, Oñaz jauna,
Frantsez jendearengana?
Edur maluta ugaria,
Ugariago etsaia.

Larrean emaztetxuak,
Begian negar-malkuak,
Atoz len bai len etxera,
Bestela oso galdu zera.

Aurrera mutil maiteak,
Etxera dollorkumeak;
Il emen edo garaitu.
Oñaz jaunak esaten du.

Zein gelditzen da atzian
Oñaz ikusita aurrian?
Zu zera nere nagusi,
Zurekin il edo bizi.

Jun dira emendik betiko,
Ez dira iñoiz etorriko,
Beti euskaldun mendiak
Ez besterentzat gaziak

OLAZAR'tar Martin'ek

MAXA IKUSPEGIA

Balkoi bat dirudizu
MAXA zoragarria
eukaldun errian,
berez zara bikaiña
oiñetik ta burura
edertasunian.

Giza jakituriak
goi-goratu zaitu
mendien artian,
ederretan ederren
Barandiaran jaunak
goratuz itzian.

Alderdi danetatik
goragarria zara
giza begietan,
Bizkai aldera adi
balkoia dirudizu
ikusgarrietan.

Ardi zuri zuriak
zoraturik dabilzaz
zure magalean,
usain gozozko bedar
txit aintzagarriak
gozartuz agoan.

Irrintziak entzunda,
zaldiak, pozez, dabilz,
mendian saltari,
gora ta gora MAXA,
dirautzo eguzkiak
MAXA guztiari.

Gozoz beterik dagoz
mendiaren egalak
eztiak ondurik,
erle aintzagarriak
goizian goiztar dabilz
egoak zabalik

PAULIN

IZKUNTZAREN ZENTZUA

Izkuntzaren buruz, esaera au entzun neban lengo egun baten: “Izkuntza, mezuaren burdi (vehículo de comunicación) bat baiño ez dala besterik”.

Esaera ori gatz-gabekoa izanez gaiñ, bereztasunaren egizko sinismenetik, ardurabako ollo-busti edo bildurtien egogamen baragarria da. Noren bildurra?

Mundu onetan Izkuntza eta Euskerea batez be, Euskal-izatasunaren tresneri aundienetariko bat dalako.

Daukagun Gorputza da bestea, eta bien artean egin “al” dabe Mundu onetan gure ibilbidea.

Gai onetan biak!! Gaia’k daukan bereiztasunezko Legean eginda dagoz, mundu onetan beste aukerarik ez dagoelako.

Daukagun gorputza bizi garan bereiztasunezko inguruan, ibilbideko aukeran indartzen da. Nai gorputzaren egokitasunean, nai trabetasunean.

Izkuntzaren aalmena, daukagun Arima gorputz onetan mozorrotuta baiño geiago izatez gaiñ, Arima-arteko ibilbide onetan ulermenean adierazteko, bera da tresneri bakarra.

Bere almenetik adierazten doguz gure Arima’ren ulermenean sendimenduzko biozkadak; Gai-bidetik lan-eraren jakintzako egokitasuna; JAINKOA’ren aurrean bir-lotu (religar) edo alkartu, eta gure Arima’ren artean maitasunaren adierazpenean besarkatu ta inguraten gaituna.

Azken baten, bera da Nor-beragandik asi-ta, sendi, leiñu ta aberritu egiñez gaiñ, berezko Batzngotasun orreri ta bere bereiztasunezko Nortasunari izena ezartzen dautsona: “EUSKALDUNAK” eta abar.

Orrek esan-nai dauana: JAINKOA’K bialduta gai-bizi onetan jaio gaitez an eta gure egin bearrak nortasunezko ordezkariaren ardurapean bete daiguzan, “LORTU GENDUN NORTASUNAREN IZAERA BERA!!” EUSKARA ezerezetik sortu gendulako, dala.

Euskaldunai, gure ardurazko ordeak Euskeraren sabelean egosita ainbeste milla urtetako iker-senean, daukaguzan Nortasuna ta Izkuntza zendu jakuzan, ordeztu-ezinezkoak diranak, NORTASUNAREN ibilbidean izaeraren eza agertzen dalako euren ezereztasunean.

NORTASUNA’k ZELAN GALTZEN DAUAZAN MAILLAZ-MAILLA BIZITZAREN NORA-BIDEAK:

Mundu onen gizarteetan (oiñarrizko erpeetan izadiko lege bardiñak euki arren) antolamenduzko era ezberdiñetan ezartzeko, Munduak daukan gai-bizi legearen dagonean kokatzeko beartzen gaitulako da. Antolamendua, bere inguruaren izatasunean egokitu izan bear gendulako.

Izkuntz ezberdiñetan be, bardin: Gizarteetan aalmen bardiñak eukinda, berezkuntzak emoten dauan ondorea dalako.

Izotza urtzen asi zanean, Afrika’tik Europa onetara etorrita, Kromañon senditasuna izan zan, lur-aundi au izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñean oiñarritu ebana.

Eta janari bidean zabaldu ziranetik goian esan dodan lez, banakuntzaren ondorioz izkuntz ezberdiñetan oiñarritu ziran.

Orregaitik, Europa’ko lur zabal onetan kormañoen

ainbeste oiñarrizko itz bardiñak (zetan ezanik ez, Afrika, etorri ziran lekutik be).

Europa onetako Nortasunaren askatasunean or! lortu zan babeserako egon dan batzangotasun aundiena ekanduzko oituraren antolamentduan.

Beti egon dira, dana jan gurean eta aundikerizko norberkeriak emoten dauan erreztasunagaitik (errezagoa dalako jatea edo apurtzea eraikitea baiño) euki eben ekanduzko oiturak apurtu edo gaiñetik egin bearra.

Eta norberkeri ori aundiagotu egingo zan, nortasunaren askatasunezko lotasagizuna babesteko, lurraldeko muga-barruetan antolatu ez ba ziran.

Erriko antolamendu barri orreitan, Norberkeri orreik, nortasunaren askatasunezko lotsagizuna babesteko, lurraldeko muga-barruetan antolatu ez ba ziran.

Erriko antolamendu barri orreitan, Norberkeri orreik, ez een ardura aundirik euki, erritarrak eguneroko oituan batzar-demokratikoaren aginduko lege-bidetik zuzentzan ebezalako.

Gaur egunean, Europa batzangotzeko ez zan egongo iñungo eragozpenik, nortasunaren askatasunezko lotasagizunean (demokrazia) etorri ba-giñen, eta ziur egon, gaur batzangotuta egongo giñela.

Baiña guzti au, Erromatarren norberkerien bidetik apurtu egin zan. Eta Zezar’en asmotik geien, bere indarrezko gogamenean, euren lege-menpeak danok batzangotzeko elburua eukalako.

Asmo ori, Zezar baiño ariñagokoa izan zan, Latiña erai-ki zanetik, baiña onek sendotu eban, bere maltzurkerizko “VINI VIDI VINCI”gaz.

Zezar’ek ondo baiño obeto jakin eban erriak menperatzeko (euki eben izkuntza menperatu) zer egin bear zan, baiña zer lortu eben erdi-purdiko izkuntzbarri geiago sortu baiño?

Erriak or asi ziran Nortasunaren ziurtza edo nora-bideak galtzen, euren izaeraren ulmenerako euki eben garrantzi aundiko izkuntza, era-bideko azturaren erreztasun aundikoa izan zana ongaizkatuta geratu zalako.

Godoa’k ezereztuta, erritarrak babes geiagoaren egarrian, askatasunezko antolamenduetan asi ziran eta Jaun edo erregetzaren irudiak ezarri ebezan.

Erromatarren berakadan, batzango-menperatzaille asmakizun orreik ezereztuta geratu daitez an bildurragaz, IV’n gizaldian Konstantino’k, erriareteetan zabalkuntz aundia artzen egon zan Kristautasun egarritasunagaz alkartu gura eben, euki eben asmakuntzak sinesmenduta iraun dagian, eta Kristau-Eleizan norkerietan ibili ziranarekin katokikoatasunaren aukera artuta, ziñeskintzazko arauak ezartzen asi ziran.

Erromatar eta Godo’ak ezereztuta geratu ba ziran be, Eleiza katolikotasunaren antolamendutik, Erromatarren legeak eta latiñagaz jarraitu eben aurrerantza, Europa’ko Jaun Errege barri orreik sare orretan sartuta.

Nafarroa’ko errege-jaurkintzatan orregaitik ez zan ezer euskeraz idatzi, nai-ta Euskara’ri “LINGUA NABARRORUN”en izena ipini (katoliko menperatzai-

Ileen lan-aurrerakoientzat ez ebalako garrantzi aundirik euki), eleizaren guzurrezko ziñeskintzaren bidetik latiña eta erromatar legeak ta erromantzeak, berezkotasunaren izkuntzak alboratuta edo ezereztuta geratu daitezkan, ezarri gura ibili ziralako. Eta orregaitik gure berezkotasunean datozen Foru-Batzarraren legeak be, ezberdiñak dira Billa'tan erregeak eta Jaunak ezarri ebazanarekin.

Emen, Euskal Nortasunaren Askatasunerako eginkizun onekaz, aurrerako bidean, apur-bat biaoño geiago galdu gendun

Erdi-mende guztiko alegiñ orreitan, ikaragarrizko astokeri galantak egin ebezan kruzadak eta fede-zaindi edo inkizizioak dirala-ta, erritarren nortasunezko izkuntz ta sinismenak geiago naspilduta. Gaiñera, gure Jauntzaren barruan, norberkeri orreik onartuta, ibili ziran leiakaz, erritarrak naazte ortatik urtetako ez eban aukera aundirik euki.

Beste oinkada aundi batzuk be emon dira menperatzailetasunezko alegiñ orreitan: Frantzia'ko iraultzagaz, Napoleon, Hitler, Estaliñ, Franko eta gaur azkeneko Amerikarren lendakariakaz erritarrak arduragabearen xautzailetasunezko bizi batera bideratu naian.

Zer lortu dabe... Norberkerizko lasterketan ibili diranak berezko erritarren aurka?: Gai onetan "Nortasunezko arduran bizitzeko bear dan garbitasun guztia, zikintzea", eta bizitzeko bearrezkoa dan Gaia bera be.

Zer lortu dogu berezko erritarrak menperatzailetasunaren aurka?: "Norberkerian eraikitako tresneria ezereztuta: Latiña eta katolikotasunaren asmakuntza".

Ze tresneri-txar geratzen jaku... bizitza bakera bideratzeko?: "Erromataren gandik datorren leenengo menperatzailetasunezko-batzangotasunaren asmakuntza. Eta euren berakadan Frantzia'ko iraultzaren ondorioz, berezko erriak erregeakaz Alkargotuta, Aberri-arteko lurraldeetan bere bakezko-epaiketak antolatu dagiazan, lurralde orreik laterrizko aberri barrietan biurtzeko asmakuntzan dabizen menperatzaileak indarragaz beartuta, daukaguzan laterrizko jaurkintzak geratzen dira".

Berezko Erri ta erritarrak, zelako aukerak daukaguz norberkerizko Laterri onein indarrak ezereztuteko?: "DANAK".

a) Gaur, Mundu onek daukazan Legeen aurrean, norberkerien lasterkak neurriaren kanpokoak dirala, argi ikusten diralako.

b) Mundu onetan, Danoen ordezko ardurak esku-gitxitan artzen diranean, ez diralako danoren lanak egiteko, norberkeriaren sasi-aberastasunean bizitzeko baizik.

d) Neurritik kanpo dabillen gauza eta alegiñ guztia guzurra edo okerra dalako.

EUSKALERRIAN:

Euskalerrian, Mundu ta Europa guztien antzeko arazo bardiñak daukaguz: "Berezko Erri ta gizartearen eskubideari, ezezkoaren ondoriotik agertzen diranak".

Menperatzaileak len ez ziran txantxetan ibili euren jabetasuna lortzeko, eta gaur bardiñ.

NORTASUNEAN adibidez: "Euskalerrian eta beste berezko errien Nortasunak makurtzeko, Europa'ko norberkerizko merkatari eta agintari guztiak alkartuta, gauza bardiñaren atzean dabiliz, eta guri dagokionakaz Frantzia ta Espaiñaren azpikerizko joko-arazoetan gura nai-ez sartuta, gure jauntza euren erregearen pertsunagaz lotuta egon

zalako eta eleiz-katolikoaren laguntzagaz sartu ginduzan ainbat guzurrezko babes-borrokaren bidetik erdi lelotuta urten gendula".

IZKUNTZAN: "Euskalerriko ikastoletan ainbeste maisu atzerritar ipinita eta apaiz batzuen laguntza aundiarekin erritarren sinismenagaz baliotuta, Euskerea ezereztu daiten (hable usted cristiano).

SENDIETAN: "Gure etxeetan Nundik bideratuta asi ziran sartzen, gugaz ez dauken ezer ikusirik, sasi-arrazoizko ziri orreik? Ikastoletako gazteen arten asi-ta ametsetan ibiltzeko lo-bedarrak. Ikasleen eskubideak goratu, jakintzara eltzeko egin bear daben lanak oreka galdu dagian" eta abar? Emen: "Txarto gogoratu zaitez eta asmatuko dozu" 1970'ean asita esaten gendun.

GIZARTEAN: Ziriak "Nundik bideratzen dira... gure buruetan ain naspillatuta agertu gaitezkan, arduragabeko xautzailetasun sare onik on-artzeko?"

JAUARKINTZAN: "Gure edo berezko jaurkintzaren arduradunak izan ba ziran, ez gintzazan ain errez gal-bide orreitan jausiko, danok alkartuta benetako gudu-leku lez aurre egin-genukelako". Orregaitik, gaurko egunean ain erreza da ikustea, beartuta daukaguzan laterrizko jaurkintz oneik ez dirala gureak, berezko erritarren ardurak babestu barik norberketian dabizenan ondasunak babesten dabezelako. gure guda aurreko Euskal-Ordezkarriak orduan be argi ikusten ebelako eta Europa'ko Kristau-Demokraziaren Alkartetik esan: "Indarragaz ezarritako Laterri orreik, luzerakuntzan ez ebela balio, menperatzaileak ziralako".

Espaiña'ko Laterriaren agintari batzuk esaten eben: "Lenago gorri laterria apurtu baiño". Noren jainko bidetik ibili ziran orreik? Eta emendik aurrera: "Txarto gogoratu zaitez eta labur geratzen zara" esaten gendun.

ZER EGIN?:

Gaur egun, emen ez dauana balio leerkalluekaz jolasten ibiltzea da, eurak leerkailu eta guzurrekaz maisuak izanez gaiñ, Europa'ko Laterri ta Amerikar menperatzaileak aitzaki orrekaz alkartuta, gaur "defensa preventiva contra todo terrorismo" sortzen dan lez, arrazoia euren aldera bialdu gendugenuelako.

IZKUNTZA greganatu egin bear dogulako Euskalerrian NORTASUNA osasuntzea eta indartzea gura ba-dogu. Bizitzaren egokitasuna zaindu. Lelotuta geratu diran euskaldunak bizkortu konturatu eta seneratu daitezkan, okerrezko arrazoiarekin amateuta daukien garra biztuta, eta abar.

Orreik diralako gaur eguneko leerkai zitalenak norberkerizko menperatzaile jolasketetan dabizenen aurka.

Eta Euskal izkuntza tresneri bakar-bat dala esaten dabena, bai-ta edozelako Euskal-izkuntzaren atzetik dabezenai esan!: "EUSKAL-MAITASUNA IZKUNTZAREN TRENBIDE EDERRENEAN BIOZTKADA INDARTSUNENAGAZ ALAI ETA ZIURTASUN GUZTIAGAZ GURE ARTEAN ETA MUNDUAN IBILI DAITEN, BEARREZKOAK DIRALA JATORRIZKO ARGIE-EDER TA GARBITASUNAK". "NORTASUNA ALAI IBILI ONDOREN IZKUNTZA BERA DANON POZTASUNENTZAT, MAITETASUNEZKO OLERKI EDERRENA IZANGO ZALAKO".

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n 2005'ean UZTAILLA'REN 13'AN

LEIBNIZ (1646-1716)

Buru-argi zaleen bidean gorengo maillako jakin-zale bat dogu Leibniz eta onek bere kidego guztien oztopoa aurkitzen dau, ezin dauala alkartu adimenan dagozen eta bertan jaiok diran burubideen eta begien aurrean daukaguzen gauzen arteko alkartasuna eta korapillo au askatze-ko asmatu eban Leibniz'ek "aurretiaz ezarritako armonia".

Ez dauke olako arazorik Platon alde bateri itzi eta Aristoteles'en kenketa edo abstakaziño-bidea aukeratzten dabenak, baiña onein artean be aurkituko doguz beste aldera joan eta zentzunen bide utsa onartzen dabenak eta oneik be ez dabe aurkituko adimenera altzeko biderik. Orregaitik da nitzat biderik egokiena Akino'tarrak Aristoteles'gandik artuta irakatsi eban bidea: Zentzunen eta keneketaren bidez aurreko gauzetatik adimenerakoa.



Leibniz Leipzig'en jaiok zan eta umetatik izan zan azkarra, bere aitaren liburutegian egozan liburuak irakurrita. Paris'en ezagutu eban Deskartes eta Spinoza'ren bidea eta gero London'era.

Newton'egaz batera antzean asmatu eban infinitesimal zenbaketa eta aljebra erabilteko tramankulutxu bat be asmatu eban.

Hannonver'en il zan eta ez zan iñor joan bere illetara, idazkaria ebana baiño.

Oña emen bere pentsabideak: Guztientzat bakarra dan zientzi-bidea asmatu eban, ars combinatoria deritxo berak. Eta filosofi bidean gauza guztien alkartasuna edo armonia datuka beti begien aurrean, jaungoikoak ezarritako armonia. Deskartes'ek kendu eban elburuaren bidea ezarten dau. Eta azkenez, eta laugarren gauza lez, bere bizitzan, burubidez eta egitez garrantzi aundiko gauza bat da eleiza guztien batasuna billatzea.

Wolf'en ustez Leibniz da Entziklopedia'ren aurrelari eta Kant aundiari bideak gertatzen dautsazana. Eta Hegel'ek be kontuan artuko da Leibniz'en pentsabidea, sarritan zeatz aztertzeke. Filosofo onen bidetik sortuko da geroago Blondel jakitunaren pentsabidea.

Leibniz'ek lojika matematika kontuan dauala, zientzi guztiak alkartzeko lana egin ondoren, enpirismuari edo zentzunen bide bakarra aurkezten asten diranai azterketa gogorra egiten dautse, eta or aurkitzen dau Aristoteles be kritikatzeko. Arimea ez dala "tabula rasa", artzurizko ola eta markak eginda daukazan ola dala adimena diño. Egia buruan dagozan idea bertan jaiok diranak bide dirala lortzen da. Buruan dagozan idea orreik "a priori" ezagutuak dira, eta aurreko gauzen ezagupena "a posteriori" daukagu, zentzunak ideak izartzeko bide dirala.

Leibniz'en burubideetan argi dagon beste gauza bat, bere baiezkortasuna da: Jaungoikoak egin leiken mundurik onena egin eban.

Baiña goazen beste mundu arrigarri bat aztertzer "monaden mundua". Monada ori gauza xumea, zabaltsun bakoia, zatitu-eziña eta materi-bakoia da, eta zertasan guztietan batasunik argiena daukana. Monadak ez dauke leiorik, ezin daitezke aldatu inguruan diran gauzakaitik. Ez dauke asikerarik eta ez azkenik, Jainkoak egin ebazan eta berak bakarrik kendu leikie izatea. Monadak indarrak dira et artu naiz gura izan leikee. Batzuk euren buruen barria dakie, konszienteak dira, eta olakoak diranai arimea esan leikie.

Monadak alkarrari eragiterik ez dauke, Malebrantxe'ren abagune edo okasinalsmoa be ez da onartzekoa, orduan gauzen armonia eta buru-argiaren barrukoa alkartzeko, "aurretiaz ezarritako armonia" "armonia preestablecida" ezarri eban Leibniz'ek: Erloju bi dagoz bakoitza bere bidetik, baiña beti doaz batera bien erloju-egillea Jaungoikoa dalako. Baiña zelan ulertu bide orretatik gure askatasuna?

Jainkoa ba-dagoala baieztatzeko beti artu diran bidean onartzen dauz: Kontinjentzia-ens a se, kausalitatea edo bere ustez "armonia preestablecida"ren bear izana, egiaren betikotasuna, eta izatearen bidea eta "argumento ontolojiko", baiña Kant'ek esango dauan lez, or ez da besterik agiri Jainkoa izateko aurka ezer ez dagoala baiño. Argudio norrek ez dau baieztatzen Jainkoa ba-dagoala.

Mundugintzan Jainkoak aurrean daukaz izan leitekezan gauza guztiak eta beartuta dago gauzarik onenak egiteko. Nondik dator orduan txarra mundura? Izakia beti mugatua izatetik eta giza-askatasunaren ondoren dan pekatutik.

Goazen gizarteko bizitzara edo politikara, bere esanetan errepublika edo gogoen urira.

Munduan diran gogo guztiak ezagutu leikee mundua, eurak alkar eta Jaunkoa, badauke ba moralerako edo jokabiderako izakera bat. Jainkoa da guzti onein buru eta errepublika onen agintari bakarra, monarka absoluto. Eta errepublika ori da "graziaren erreiniua".

Emen izten dogu Leibniz, Wolf bide dala, entziklopediaren aurrean eta buru-argi edo errazionalisten gorengo maillan. Eta entziklopedia igaroten danean, Kant'ek aztertuko dau bide ori.

Au amaitzeko, ez dagigun aizte zelako Jainko-zaletasuna agertzen daben buru-argi dira filosofo oneik. Gero olako gitxi aurkituko doguz.

OLAZAR'tar Martin

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA (GALDAKAO'N)



Dantza-taldeko lenbiziko lendakaria Amantzi Meabe izan. Meabe ainbat ardurako bearrak egin zituan dantzak zirala-ta, Kurtzeko eleizan parroko D. Juan Agirre zala eta Erletxetako abade D. Jesus Maria Markaida, Zugutzu'ko abade D. Ignazio Aldekoa, Bengoetxe'ko abade D. Bitoriano Madarieta baita abade geiago be Andra Mari taldearekin laguntzaille izanak, Amantxi jaunak lenengo urteetako denpora areitan lan asko egin eban.

Sabino Larrea: Amantxi jaunaren antzera, espatadantzari-talde bat sortzeko, sekretario edo idazkari Katoliku Ekintzan izendatu eben.

Egiarte'ren ezagunak izan arren, Amantxi eta Sabino, Gaztedi dantza-taldeko Josu Meabe eta Joseba Arrieta jaunon artean artu-emonak sortu ziran. Galdakao'ra dantzak irakasten Gaztedi Dantza-Taldetik baten bat etorteko eskatu eta Karmelo Dantza-Talde'ko jaun orreik, Juan Orozko "Txinbera" jaunari esan, eta arek baietzagaz erantzun, eta Galdakao'n Andra Mari Dantza-Taldeko lenengo dantza maisu izanik, ba azkenengoa, Jose Luis Etxebarria "Txelu" izan zan.

Gazteditik Galdakao'ra "Txinbera" eta San Migel Basauri'ko dantza-talde bat sortuteko Josetxu Beaskoetxea izan zan.

Sabino Larrea'k, bai dantza, euskera, pelota eta beste mailla batzutan be Galdakao'n lan asko egin eban. Dantza-Taldeak Galdakao'tik kanpora urteteko izen bat bear ebala eta taldeari ipinteko izen-pare bat edo aitatu eustazan eta nire amari esan 1959n. urtean eta amak eleizako sakristian gengoan lez, Andra Mari izena emon eta orrellan asi eta jarraitu, baiña 1960n. urtean Andra Mari Dantza-Talde izen ori danerako erabilli genduan.



Sabino Larrea'k, argazkian, Berriz erriko pelotari Albizuri anai bakoitzarekin Galdakao'n Kurtzeko Frontoian, 1959n'eko Santa Kurtzetako jai orreitan bi anaiok txapeldun, txapel eta koparekin agertzen jakuz.

Sabino Larrea 2002n. urteko apirillaren 16'an il zan Galdakao'n.

JUAN OROZKO "TXINBERA"

Argazki onetan Txinbera aurreku-dantza egiten, Dima erriko Artaun auzunean agertzen da, Beti lez irri-

barrea agoan dauala. Galdakao'ra dantza-maisu lez Karmelo'ko Gaztedi dantza-taldetik etorri zan.

Txinbera'ren denporan esaten zan Pedro Ignazio Artetxe, "Kepa" pelotari ona izatetik, dantzak zirala-ta alperrik galdu zala. Eta Pedro Mari Azkueta'gaitik dantzak zirala-ta futbolista on bat alperrik galdu zala.

Artetxe'k Bermeo'n futboleko be jokatu eban eta Azkueta'k Klub Deportibo Galdakao futbol talde orretan.

Txinbera 2.000n. apirillaren 16'an il zan. Beti umoretsu egoan gizon orrek auxe kantetan eban sarri: "Aita Jainkoak nonbrau ba'nindu, zeruetako giltzari, azken orduan jakingo nuen, atea nori idegi: Lenengo aitari, gero amari, gero anai-arreba eta azken orduan isil-isilik nire maite politikari".



Sabino Larrea: Sabino'ri, dantzari buruz etorritako idatz eta eskutiz guztiak artu eta Egiarte txistulariak gauza bakoitza bere lekuan jarten ebazan; baita itzulpenari buruz frantzerazko idazkiak Ana Rosa Ugerte'k egin eta Inglesezkoak Mari Jose Garabietak egin eban.

Beste dantza-maisu batzuk: Txinberagaz, Gaztedi'tik, Martin Azurmendi, Pedro izeneko beste bat eta

nor bait geiago be pausu edo dantza puntualen bat irakasteko etorri ziran. Eta Dindirri dantza-taldetik Julian eta Jabi Arrieta, Pedro Mari Arbulu, Jabi Domingez Azpiolea eta beronegaz Boluetako dantza-taldetik Adolfo Jimenez Garaigordobil eta andrazkoak be bai dantzan irakasten etorri ziran Galdakao'ko dantza-taldera eta euron artean Aureli Arroyo Aldekoa eta Edurne Isusi. Edurne lenengotan Batz Alai Iralabarr'i'ko frailleetan egoan taldean dantzan egiten eban eta gero Dindirri taldera joan zan, eta andik Galdakao'ra etorri.

Jose Luis Etxebarria "Txelu" 1960n. urte-inguruan Gaztedi'tik etorri zan eta datza-maisu au Galdakao'n taldeko azken-irakasle izanik, urte batzutan jarraitu eban.

Iparraldera urteteko, bai Azparren, Donibane Loitzun, Ezpelet, *Kanbo eta abar, erri orreitarra joateko, taldeko gaztetxuen bisauak, egun berean joan-etorria egiteko Irun erriko konbentuan egozan. Bizkai-aldeko Mendata erritarra da Aita Mateo Argintxona pasieotarrak mugaren alde bietara joan-etorria egiteko lortzen euskuzan.*

Euskalerriko edo Baskonia edo Euzkadi lurraldetik Europa'ko beste lurralde Batzutura joateko, baita aurreko urteetan baiño diru-laguntza geiago jentearen aldetik baita enpresa eta abarren aldetik lortu eta 1965n. urtean Euskalerriko Lurraldetik beste leku eta erri batzutura jira edo urtenaldia egin genduan.

Bidaietarako-eta ainbat urtean Karmelo Barrueta txistulari izanekoak eta bere lankide zan Tomas Santrakutz jaunak Bengoetxe'n bodegillan eukien arautegitik beti ogeiren bat garrafoi ardauz beterik opatzen euskuezan, bai biderako eta bai taldeari bidaian emoteko. Eta danak emon be doan.

Bai Frantze'n, Breña Aundian eta beste toki batzutan be, bai gabaz eta bai egunez, gure aradauari botatik, umeak titiari lez tirtutun jakon eta makiña bat guardi mozkortuten ziran.

Jira guztietan eroaten gendun ardautarako zaatoa edo botea, Plazakoetxeko Begoña barrekoak urtero itziten euskun Euskalerritik kanpora joaten gitzazenean.

Bai dantza-taldea sortu zanetik eta geroago be, Begoña'ren alabea ta neska mutil asko dantzak ikasten asi ziran, baiña dantzatu argazkikoak baiño ez eben egin.

ANDRA MARI DANTZA-TALDEAREN SORRERA

1957n. urtean, ekaiñaren 21 edo 22'an, abade izango zan baiño urtebete lenago, Iñaki Ibarra jaunak 1954-55 inguruan Gasteiz'en ikasita dantza pausu batzuk Galdakao'n parroko sakristian, ille bi ta erdi inguruan, mutilleri irakasten asi zan.

Oraindiño Egiarte soldaduzkan egoan eta ni Bengoetxe'ko neska taldeagaz txistulari lez nenbillan lez, Ibarra'k, parroko Sakristira txistua jotzen joateko deitu

ninduan etaorrelan joan nintzan eta geroago be jarraitu neban, naiz Katoliku Ekintzakoak ez izan. Egiarte uztaillaren 22'ra arte ez zan doldauskatik etorri etxera. Ordun lizentziatu eben.

Gero, 1957n. ean bertan, parroko sakristian eta Galdakao'ko seme zan Dr. D. Remegio Gandasegi Goi-Gotzaiñaren kuadraren aurren, Sabino Larrea, Amantxi Meabe, Jose Luis Egiarte eta geiago be, batu ziran arratsaldean egun baten. Ez dakit Iñaki Ibarra egon zan. Baiña batzarra dantza "grupo" bat egiteko asmoan egin zan, eta akordu ori Katoliku Ekintzako Batzar Nagusiarri emoteko, jantzarrena ontzat artzen zan ala ez, orrelan jakiteko.

Izen pare bat-edo be "grupo" areri ipinteko asmauta euki ebezan, baiña gustukoak izan ez-edo, niri Sabino'k esan eustan neuk be "grupo" arentzat izen bat emon neikela eta auxe izan zan esan neutsona: Nire amari esango dausat ia zer jiñostaken eta nik gogoa nire amari azaldu orduan auxe erantzun eustan: "Ezabizie eleizan, ba eleizakoa dan Andra Mari dao ondo. Ortik Sabino'ri esan neutson eta Amantxi'ren baietzagaz eta akordu orregaz eta besteanakaz, alan sortu zan gaurko Yantza-Taldea eta izena be. Bai. Eta ori iñork be ezin leike ukatu, egia da-ta.

Goi Gotzaiñaren laukiaren aurrean artu zan akordua Katoliku Ekintza'ko batzar nagusira eroan zan baiña batzar nagusi aretan, batzuk lagun baiño aurkako legiago

izan zarren, beste alde batetik ba-egoan abade ta abade izango ziranen eragiña be, euron lenengo mezarako be "Grupo de Danzas" edo dantza-talde bat izan eitean. Ondo legokela eta izango zala ospakizun arietarako esanaz; eta ikusirik Ibarra zala dantza-pausuak irakasten asi zan lenengoa "Grupo de danzas" izango zanaren izena ta dantza taldea bat egitea ontzat artu zan; eta yantza-talde aren lendakari Amantxi jauna eta Sekretario Sabino Jauna izendatu ebezan, eta ontzat artze ori akta baten idatzi be egin zan.

Ibarra jaunaren lenengo meza-emotea Galdakao'ko parrokan 1958n. urtean uztaillaren 20n. egunean izan zan eta mutillak Txinbera'gaz ikasten ibilli ziranak prest ez egozan lez, dantzaldia neskak egin eben, baiña arkue-
do mutillakin be egin zala uste dot.

Ramon Salutregi fraille jaunaren lenengo mezea emotea, Galdakao'ko parrokan 1959n. urteko uztaillaren 12n. egunean izan zan et neska-mutillak dantzatzeko Egiarte'k txistua jo eban, Borbolla mutikotxiua atabalari zala.

Galdakano'tik kanpora dantza-taldearen izena Andra Mari erabiltea, uste dot 1959n. urteko augustuaren 9n. egunean Gernika'ko plazan izan zala eta Bermeo'ko jaietan 1959'ko iraillaren 9'an be bai.

JOSE MARIANO BARRENETXEA'K



LAUAXETA OLERKARI DIRDAITSUARI (URKIAGABASARAZ'TAR ESTEBAN)

Giza seme jatorra
Laukinizko gaiñean
sortu zan errira,
maitasunak lagunduz
egusenti ederrez
urbilduz argira.

Argien argi zara
zeruak lagundurik
euzko lur ederrean,
zerua eta lurra
maitagarriak ziran
Laukiniz gaiñean

Argia artu zendun
doai zoragarria
txinparta artian,
egiz, zaindu zenduan
ertizko doai ori
bizitza guztian.

Berezko doai argiz,
gozaro, eldu ziñan
euzko parnasora,
ta zuk, beti, erantzun
gogorik onenagaz
euskal itz erara.

goienengo maillara
eldu ziñan olerkiz
euzko lur guztian,
euskaldun jakintsuak
saritu zinduezan
itz eder argian.

Olerkari argia,
erriak maite zaitu
gizon ta olerki,
itza goratu dozu
euskaldun izatea
agertuz maiteki.

ARNASEA ARTU EZINIK

Konturatu zara, irakurle ori, aspaldion Deustun egoten dan aire kutsadura mailea sano igon dana? Urte bi, apur gorabeera, izango da egunean-egunean, geienetan ilundian, upealango gas-sunda gorria asmetan asi genduana etxekook.

Asikeratan oi dan lango gauzatzat artu bagenduan be, asteak, ileak joan eta etorri eta gas-sundea geroago eta biziagoa, denporan luzeagoa, iraunkorragoa eta, neure eritxi apalean, kaltegarriagoa izaten izan da.

Kaltegarriagoa dinotsut, eta ez daukat uste txikerrik orretan txintik be oker ez nabilenik, geure, danon osasunean txarrera sano eragingo daualako, luzetara edo laburretara.

Or egunero-egunero, baten be uts egin barik, birikietan eta odolean, gaur bai eta biar be, ekinean jabilkulako, karramarroaren beartxua geuri egiten.

Noz arte egon bear dogu olan, ba?

Inork pentsau lei: ederto, itxi eizak etxeko leioak eta kitu, gizona!

Eta egin alantxe egiten dogu. Zameak or dirau, baina, egun baten be lotu barik.

Loikeria naia. Ze, gitxi-asko be, lantzean beinean ia danok urtetan dogu etxerik zer edo a egiten, kakatza ori barruetagino sartuten jakula.

Ezin dogu-eta, noz edo noz burua kanpora atara barik bizi, geienok beintzat.

Nork sortu eta kanporatuten dau ori gasori?

Emoten dau kimika edo petrokimika arloan dabilen enpresaren batek egiten dauala gasa isurtzea.

Zorrotzaurre baino asagorik ara etorten jaku, aurki.

Deustun asmetan dogua aitatu badot be, berton ezeze, Basurto, Indautxu eta Abandoibarran be asmau leiteke, geurean bestean beste sendo edo bizi.

Seguru, beste alderdi batzuetan be arazo berbera sufriduten dabena. Ez da makala loikeria ori iruntsi bear dauan biztanle kopurua.

Norbera kokotagino egon eta ardura andiko gauzea dala eritxita, Deustuko zein gasak eragiten dituan beste alderdietako auzo alkarteai dei gorria egin gura deutset lerrootarik, batu daitezkan eta orren aurka egin leitekezanak egin daiezan.

Mesedez eta arren!

Iniaki PRIETO

EUSKAL ASTEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, Bilbao'ko Udalaren laguntzaz, urtero lez, Euskal Astea eratzen dau:

NON: Colon de Larreategi 14, 2^a

NOZ: Zemendiaren 21'etik 25'era.

ORDUA: Arratsaldeko 8'etan.

GAIK ETA IZLARIAK:

21. astelena: Paul Atutxa'k, Euskaldunen lurra (I)

22. artitzena: Martin Olazar'ek, Euskal literaturaren laburpena.

23. eguastena: Asier Legarreta'k: Bertso-papelak

24. egunea: Josemaria Murua'k: Kardaberaz Bazkuna.


25. barikua: Paul Atutxa'k: Euskaldunen lurra (II).

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKALDUN BARRIENTZAT



ZAZPI EZBARDINTASUNAK



ESKERREKO IRUDIAKAZ, ESKUMAKO BAT EGIN BEAR DOZU, ZEIN?

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²